



1965-2015

EUSKAL DANTZARIEN BILTZARRA

BIDEO LEHIAKETA - 2015

Euskal Dantzarien Biltzarrak, Kultura tradizionala sustatzeko helburuarekin, urtero izango den bideo lehiaketa zabaldu egiten du. Jarduera honen inguruan dauden edo erlazioa daukaten diziplinak kontutan izango dira (Folklore, Etnografia, Etnologia, Antropologia, Soziologia, Historia, Artea ...).

GAIA

Saria eskuratzeko aukera izango dute dantza eta musika herrikoa, ohiturak, tradizioak, jantziak, musika instrumentuak, haur jokoak, erritualak, gastronomia, festa tradizionalak, kondairak, eta orokorrean tradizioei edo forma folklorikoei erreferentzia egiten duena edo Euskal Herriko edozein puntuko herrietan izate edo bizimoduari erreferentzia egiten dieten ikerketa lanek.

Oso positiboki baloratuta izango da Euskal Herrian edozein lurraldeko dantza eta musika herrikoien inguruan aurkezten dena, eta zehazki dantza tradizionalen aurkezpena era didaktiko batean adierazten bada.

PARTEHARTZEKO BALDINTZAK

Lehiaketa herritar guztiei irekita dago, adin guztietakoak eta edozein nazionalitatekoak. Parte hartzaileak bertakoak edo kanpotarrak izan daitezke, mundu osoko ikerketa taldeari irekita dagoelarik.

Parte hartzaile guztiek izen emate fitxa bete behar dute, www.dantzagune.eus web gunean zintzilikatuta dagoena. Bertan daude eremu guztiak beteak egon beharko dira, baten bat zuzenki beteta ez badago, antolaketa taldeak parte hartzearen parte hartzeko eskubidea erreserbatzen du.

Izen emateko epea 2015.urteko Azaroaren 30a arte irekiak egongo dira. Eta bideoak jasotzeko epea 2015.urteko Abenduaren 31 arte izango da. Epez kanpo jasotzen diren bideo guztiak, zuzenean baztertuak izango dira.

BIDEOEN AURKEZPENA

Kultura tradizionala gaiaren inguruan aurkezten diren bideo guztiak, Euskal Herrian ofizialak diren edozein hizkuntzatan egin daiteke: euskara, gaztelera edo frantsesa.

Bideoaren iraupean gutxienez 15 minutukoa izango da eta gehienez 60 minutukoa.

Bideoa derrigorrez originala izango da, ez komertziala, beste sariketetan ez sarituta ezta telebistatik igorrita. Parte hartzaileak nahi adina elementu artistiko erabili ditzake, musika, irudiak edo egokiak estimatzen dituen beste edozein elementu.

Bideoak, inongo marka edo logorik gabe aurkeztuak izango beharko dira.



EUSKAL DANTZARIEN BILTZARRA

Dantzak, 1965-2015. Dantza hiturak, ... jatorrizko tokian grabaturik izatea baloratuko da. Irudien eta audioaren kalitatea ere aintzat hartuko da.

Bideoak aurkezteko interesa duten pertsonak, EDBrekin kontaktuan jarriko dira ondorengo helbide elektronikoan: edb-koordinazio@hotmail.com, 2015.urteko Azaroak 30a baino lehen, eta bertan emango zaizkie bideoak aurkezteko behar dituzten argibideak.

Ondoren, saria eskuratzen dutenek, bideo originala eta kalitate hoberenean DVD formatuan helbide fisiko batera bidali beharko dute. Hau derrigorrezko betebeharra izango da saria jasotzeko.

LANEN JABETZA

Lan bakoitzaren jabetza bere egilearena izango da. Euskal Dantzarien Biltzarrak bideoaren argitaratze partziala edo osoaren eskubidea gordetzen du, kasu honetan parte hartzaileak egile-eskubideei uko egingo dielarik.

Bideo guztiak ondorengo web gunean integratuak eta ikusgai egongo dira www.dantzagune.org

Parte hartzaileak adierazita uzten du eta Euskal Dantzarien Biltzarrari bermatu egiten dio, bera dela lehiaketara aurkezten duen bideoaren egile-eskubideen titular bakarra eta aurkezten duen bideoak hirugarren pertsonen eskubiderik ez dituenaren ardura osoa dauka.

Euskal Dantzarien Biltzarrak aurreikusten du, parte hartzaileak bideoan agertzen diren pertsonen baimena edota ahalmena daukala, intimitatearen eskubidearekin erlazioa duen ardura guztia egilearen izango delarik.

SARIAK

Epaimahaikideek hiru sari banatuko dituzte: 600,-€, 400,-€ eta 200,-€ (garbiak).

Euskal Dantzarien Biltzarrak, bere irizpidearen arabera, ezaugarri bereziak dauzkaten bideoei edo bereizketa edo aipamen apartekoa dutenei, sari bereziak emateko eskubidea gordetzen du.

EPAIMAHAIA

Euskal Dantzarien Biltzarrak epaimahaiko kideak izendatzeko eginkizuna dauka, hiru pertsona izango dira epaimahaikideak eta 2015.urteko Azaroaren lehendabiziko egunetan beraien izenak publikoak egingo dira.

Epaimahaikide hauek beraien puntuazio irizpideak eta aurkeztutako bideoen balorazioak lehendabiziko bileran egingo dute. Hala nola, epaimahaiak bere balorazioa bideoaren jendarteratzeko ahalmenean eta interesean zehaztuko du, eta ez horrenbeste bikaintasun teknikoan. Beste era batean esanda, balorazioa edukian zentratuko da eta ez horren beste edukiontzian. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.



EUSKAL DANTZARIEN BILTZARRA

1965-2015

Epaimahaiak sariketa hutsik utzi dezake, beraien iritziz aurkeztutako bideoek betebeharrak dituzten baldintzak betetzen ez badituzte.

GEHIAGO

Euskal Dantzarien Biltzarrak, parte hartzaileari aurkeztutako bideoaren inguruan beharrezkoa sentitzen duen edozein azalpen eskatzeko aukera izango du.

Deialdi honetan parte hartzeko, oinarri hauek osotasunean eta askatasunez onartu behar dira.